

# 1. Unitatea: Afrika Birpentsatu

Unitate honetan jabetuko gara Afrikako Historia eta haren kultura, politika, ekonomia eta beste alderdi asko Mendebaldeko ikuspegitik kontatu eta transmititu dizkigutela beti.

Ikusiko dugu, halaber, Mendebaldean duela gutxi hasi garela Afrikaren iragana bere protagonistek kontatuta ezagutzen.

**Unitate honetan aurkituko ditugun jarduerak:**  
Sustraira, jolastu eta zabaldu begirada.






## Afrika Birpentsatu

Gure bizitzak, gure kulturak elkarri lotutako historia ugariz eginak daude. Horregatik, pertsona, herrialde edo kontinente bati buruzko historia bakar bat baino entzuten ez baldin badugu, horien parte bat baino ez ulertzeko arriskua daukagu.

Afrikaren historia eta haren kulturaren, politikaren, ekonomiaren eta abarren beste alderdi asko Mendebaldeko ikuspegitik kontatu eta transmititu dizkigute. Baina **egindako bideak zalantzan jartzen baldin baditugu eta Afrikako kultura, gizarte eta herrialde guztiak osatzen dituzten historia ugariak geureganatzen baldin baditugu, Afrikaren eta mundu osoaren ulermen zabal, aberats eta osoagoa izan dezakegu.**

“Afrikan Murgiltzen”-eko saioaren lehen unitate honetan, lehenik eta behin, ulertuko dugu Afrikako leku, jende eta kulturei buruzko “historia bakarrak” transmititu dizkigutela, eta horiek Afrikari buruz ditugun ideietan, pertzepzioetan eta sentrazioetan eragina duten estereotipo negatiboz osatutako iruditeria sortu dutela. Horregatik, garrantzitsua da aztertzea zer ideia, jarrera eta portaera ditugun barneratuta, eta, hortik aurrera, “Afrika birpentsatzea”.

Beste ikuspegi batetik begiratzen baldin badugu eta Afrikako gizarteen askotariko historiak ezagutzera iristen bagara, Afrikako beste lurralde batzuetan gertatzen denari erreparatu ahal izango diogu, eta, hortik abiatuta, kontinentearen historia aberatsean sakondu.



## ▲ Afrikako mapa politikoa

### **Phiona Mutesi**

(Kampala 1996) Ugandako xake-jokalari bat da. 16 urte besterik ez zituela, Maistra izateko Hautagai bihurtu zen, 2010eko Xakeko Olinpiadetan aritu eta gero.

## **Afrikaren historia lehoiak kontatuta, eta ez ehiztariak**

**Afrikaren historia jatorriz afrikarrak ez ziren pertsonak kontatu digute gehienetan**, batez ere XIX. mendeko eta XX. mendearen zati bateko historialari europarrek, herrialde kolonizatzaileetakoek. **Horregatik esaten dugu “Afrikaren historia ehiztariak (potentzia kolonizatzaileek) kontatu digula, eta ez lehoiak (kontinente afrikarrak)”**.

Ikasi dugun Afrikaren historia idatzi zuten lehen pertsonak europarrak zirenez, Mendebaldeko kulturarenak diren kontzeptu batzuk erabili zituzten haiek herrien garapena eta bilakaera definitzeko. Baina kontzeptu horiek ez zuten balio Afrikako errealitate historiko konplexua deskribatzeko.

Horregatik, Mendebaldeko herrialdeetan, askotan, **Afrika kontinente zahar, mitiko eta exotiko gisa irudikatu da; hala, irudi okerrak sortu dira, eta, oro har, kontinenteari buruzko ezjakintasun handia eragin**. Hango jendeak, ia beti, “gutxiago eboluzionatutako herrizat” jo izan dira, aldaketarik zein aurrerapen historikorik eragiten ez zutenak. Baina tradizioak “transmititzea” esan nahi du, eta, horregatik, Afrikako tradizioak, sistema mugiezinak eta itxiak izan beharrian, Europako lehen historialariek adierazi zuten bezala, etengabe aldatzen dira eta aldatu izan dira denboran zehar, eta testuinguruaren inguruabarretara egokitu dira.

Ikuskera horiek eztabaidatuak izan dira azken hamarkadetan, Afrikaren historia konplexua ez baitator bat irizpide eta kontzeptu horiekin. Aitzitik, **Afrikak ohiko estereotipo horiek zalantzan jartzera eta eztabaidatzera behartzen du, baita mundua eta historia Mendebaldetik ikusteko dauden moduak ere**, irakaskuntzaren bidez gure eguneroko kulturari, eta, era berean, gure gorputz eta adimenetan sartu izan direnak.



Azken hamarkadetan, historialari afrikarrek egindako ikerketak orain arte Mendebaldean kontuan hartu ez ziren kontinenteari buruzko ezagutzak ekarri ditu. Afrikako historiaren “eraikuntza propioaren” prozesu hori ahozko tradizioaren azterketatik abiatuta egin da eta egiten jarraitzen da –tradizio hori ezinbestekoa da Afrikaren historia eraikitze–, baita Afrikako hainbat liburutegitan dauden eskuizkribu historikoen ikerketatik abiatuta ere.

Chinua Achebe idazle nigeriarrek esan zuenez, “lehoiak, eta ez ehiztariak” kontatutako historiaren prozesu hori Afrikako herrialdeen independentzia-aldian hasi zen, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera, eta gauza garrantzitsu bat erantsi du, joan den mendeko europar historialariek kontuan hartu ez zutena: jendearen eta herrien ahozko memoriatik eratorritako historia.

Horrekin batera, **Afrikan ezin konta ahala eskuizkribu zahar ere badago, Afrikaren historia berridazten ari diren historialari afrikarrentzat balio izugarria duen altxorra.** Afrikako liburutegi garrantzitsuenetako bat Timbuktokea da (Mali). Horretan, eskuizkribu zaharren munduko kontzentrazioarik altuena dago, milioi eta erdi baino gehiago, K.o. XII. mendetik K.o. XIX. mendera bitartekoak. Badira milaka eskuizkribu zahar gordetzen dituzten beste liburutegi garrantzitsu batzuk, Mauritania, Txaden, Senegalen, Kamerunen, Hegoafrikan eta Nigeria iparraldeko funts garrantzitsuan; azken horretan 400.000 inguru eskuizkribu kontserbatzen dira.

Azkenik, esan behar da, halaber, **Afrika kontinente oso zabala dela, eta, horrenbestez, haren Historia oso desberdina izan dela eskualdez eskualde.** Afrikan bizi diren populazioak elkarren ikaragarri guztiz desberdinak dira, eta aldatu eta eboluzionatu egin dute mendeetan zehar, haien arteko eta munduko gainerako lurraldeekiko elkarreraginean.



**Afrikan ezin konta  
ahala eskuizkribu zahar  
ere badago, historialari  
afrikarrentzat balio  
izugarria duen altxorra.**

▲ **Vera Songwe  
Mariéme Jamme**

▼ **Timbuktu, liburutegiko  
eskuizkribuen xehetasuna**

**“Lehoiak ere izan  
behar du bere historia  
kontatuko duenik, ez  
ehiztariak soilik.”**

**Chinua Achebe**



## **Afrikarren historia jatorriz afrikarrak ez ziren pertsonak kontatu digute nagusiki**

*Chinua Achebe idazle nigeriarrek esan zuenez, “lehoiak, eta ez ehiztariak” kontatutako historiaren prozesu hori Afrikako herrialdeen independentzia-aldian hasi zen, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera, eta gauza garrantzitsu bat erantsi du, aurreko mendeko europar historialariek kontuan hartu ez zutena: jendearen eta herrien ahozko memoriatik eratorritako historia.*

► **Lur-globoa: Afrika, Asia, Europa eta Ozeania**

▼ **Chinua Achebe, Penda Mbow eta Juliana Rotich**





Mendebaldeko Afrikan, Senegambiako wolof erresumak, mossi eta akan erresumak, ewe printzerriak, yoruba eta hausa erresumak; Ipar Afrikan, fatimi, almorabide eta almohade kalifa-herriak; Erdialdeko Afrikan, bamileke printzerriak, bamum, azande, kongo, lunda eta luba erresumak; aintziren arteko eskualdean, Ruanda eta Burundi, Buganda, Bunyoro, Toro eta Ankole erresumak; azkenik, Afrika australean, shona, nguni, soto, tsuana eta zulu erresumak, eta josa printzerriak; horiek guztiek oparotasun-aldiak eta gainbeherako beste batzuk ezagutu eta zenbait estrategia garatu zituzten gertaera historikoen, merkataritzaren, baliabideen aurkikuntzaren eta balorizazioaren eta abarren aurrean.

**“Ibilera historiko” desberdina eta bestelakoa izan zen Afrikako eskualde bakoitzean, nahiz eta guztien historia Afrikako gainerako lurraldeekin erlazionatuta eta hark eraginda egon.**

## Ba al zenekien?

**15.or.: Timbuktu liburutegiko eskuizkribuak:** testu eder hauen artean Koranaren edizio oso zaharrak eta astronomia eta matematikari buruzko idatziak daude, besteak beste. Maliko Timbuktu hiri legendazkoa ikaskuntza handiko zentroa da, Gizateriaren ondare izendatua.

**Vera Songwe (Nairobi):** 2017an, Songwe Afrikarako Nazio Batuen Ekonomia Batzordeko idazkari exekutibo izendatu zuten, eta kargua eduki zuen historiako lehen emakumea izan zen. 2011n, Songwek Afrika 2.0 ekimenean lan egin zuen, kontinentearen garapenean diharduten afrikar gazteak biltzea helburu zuena.

**Marième Jamme (Senegal):** 2013an Munduko Ekonomia Foroko Young Global Leader izendatu zuten. 2017an, "Innovation Award" saria irabazi zuen The Goalkeepers Global Goal Awards sarietan, UNICEFek eta Bill & Melinda Gates Fundazioak antolatuta, neskei eta emakume gazteei mundu osoan laguntzeagatik eta NBERen Garapen Iraunkorrerako Helburuak aurreratzeagatik.

**16.or.: Chinua Achebe (Nigeria):** idazlea, poeta, irakaslea eta kritikaria izan zen. Haren lehen eleberria, *Gainbehera dator dena* (Things Fall Apart, 1958), haren opera magnatzat hartzen da, eta Afrikako literatura modernoan gehien irakurtzen den liburua da. Lan horren oihartzuna hain handia izan da, ezen oinarrizkoa baita Afrikako eskoletan, eta ingelesa hizkuntza nagusi duten herrialde askotan aztertu baita. Haren prosa koloretsua goraiatu izan da, baita Europak Afrikan izan duen eraginaren, eta horren ondoriozko kulturen arteko talkaren deskribapen mingotsa ere.

**Penda Mbow (Senegal):** historialaria, ekintzailea eta politikaria da. Senegalgo Kultura Ministroa izan zen zenbait hilabetez, 2001ean. Dakarko Cheikh Anta Diop Unibertsitateko irakaslea da, eta Mouvement Citoyen (Herritarren Mugimendua) erakundeko lehendakaria.

**Juliana Rotich (Zimbabwe):** informazioaren teknologiaren arloko profesionala da, eta ingurumenarekin lotutako gaietarako buruzko web-tresnak garatu ditu; sari asko irabazi ditu teknologian egindako lan berritzaileagatik.

## Kontzeptuak hurbiltzen

- 1. Iruditeria:** gizarte-talde batek bere buruari edo beste gizarte-talde batzuei buruz dituen ideia, pentsamendu eta sinboloen multzoa, "adimen sozial" kolektibo gisa funtzionatzen duena.
- 2. Ahozko memoria:** iraganeko oroitzapen eta esperientzia multzo bati, horien ibilbideari buruzko narratiba historiko komuna formulatzeko, erreferentzia egiten dion oroimen indibidual edo kolektiboaren hitzezko adierazpena da. Herrien historia transmititzeko modurik zaharrena da.
- 3. Mendebaldeko ikuspegia:** Mendebaldeko hemisferioko pertsonak, beren lurraldeen esperientzietatik eta ibilbideetatik abiatuta duten ikuspegia da, zeinaren bidez pertsona horiek gainerako lurraldeak interpretatzen dituzten beren testuinguruak edo egoera desberdinak aintzat hartu gabe eta beren errealitatea unibertsaltzat hartuta.




## Oroitu beharrekoak

*Afrika kontinente zabala da,  
eta bere geografiak eragindako  
historia desberdina eta  
askotarikoa du*

Duela gutxi hasi gara Afrikako  
iragana berreskuratzen,  
protagonistek kontatuta

Gure bizitzak, gure  
kulturak elkarri  
lotutako historia  
ugariz eginda daude.

A notebook page with a white sticky note and a grid sticky note. The white sticky note is on top and has the text 'Zer gogoratu nahi duzu zuk?' followed by several horizontal lines. The grid sticky note is on the bottom left and has the text 'Pertsona, herrialde edo kontinente baten historia bakar bat baino entzuten ez baldin badugu, arriskua daukagu horien parte bat baino ez ulertzeko.' Two hands are visible: one holding the bottom edge of the grid sticky note and another holding the right edge of the white sticky note.

**Zer gogoratu nahi duzu zuk?**

**Pertsona, herrialde edo kontinente baten historia bakar bat baino entzuten ez baldin badugu, arriskua daukagu horien parte bat baino ez ulertzeko.**

## Bibliografia eta irudien zerrensa

Chimamanda Adichie (julio 2009). *El peligro de la historia única*. TED Talks [https://www.ted.com/talks/chimamanda\\_ngozi\\_adichie\\_the\\_danger\\_of\\_a\\_single\\_story?language=es](https://www.ted.com/talks/chimamanda_ngozi_adichie_the_danger_of_a_single_story?language=es)

Carlos Bajo Erro (19/02/2014). *Lo que queda cuando "todo se desmorona"*. Revista Wiriko <https://www.wiriko.org/letras-africanas/lo-que-queda-cuando-todo-se-desmorona/>

- <https://miclaseenlanube.wordpress.com/c-sociales/atlas-2/frica/>
- <https://rachealkizza.com/what-is-your-handicap/>
- [https://es.wikipedia.org/wiki/Vera\\_Songwe](https://es.wikipedia.org/wiki/Vera_Songwe)
- [https://www.beeso.fr/read-blog/750\\_marieme-jamme-d-autodidacte-a-leader-mondial-de-la-technologie.html](https://www.beeso.fr/read-blog/750_marieme-jamme-d-autodidacte-a-leader-mondial-de-la-technologie.html)
- <https://thegraphicsfairy.com/instant-art-printable-map-of-ireland/>
- [https://elpais.com/elpais/2013/04/09/africa\\_no\\_es\\_un\\_pais/1365495811\\_136549.html](https://elpais.com/elpais/2013/04/09/africa_no_es_un_pais/1365495811_136549.html)
- <https://fr.sputniknews.com/20200320/penda-mbow-il-y-a-comme-une-foliecollective-qui-sinstalle-au-senegal-1043339307.html>
- <https://techcentral.co.za/juliana-rotich-kenyan-tech-crusader/187844/>





